

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 16. atala

DATA: 2024/10/11

GUREAN

ZUMAIAKO FLYSCHA

Gela barruan landutako gaiak askotan gure inguruan aztertzen jarrai dezakegu... Esaterako, LHko 6. mailako ikasleak Lurraren sorrera eta geruzak ikasten ari dira. Kontzeptu horiek in situ ikusteko Zumaia bisitatzearabaki zuten, Euskal Herriko altxor naturalek geologia bertatik bertara lantzeko aukera ematen baitigute. Lurra nola sortu zen? Zenbat geruza ditu Lurrak? Zer da geosfera? Ikasleei galdeiezue, ia-ia adituak dira eta!

Mundua, natura eta bizitza ezagutzeko beti prest gaude!



GURE INGURUAN

ARKEOLOGIA TAILERRA

NOIZ: URRIAK 12
NON: MUSEO OIASSO (IRUN)



Tailer honek aukera ematen digu familian arkeologiaz gozatzeko eta, egun batez, benetako arkeologo bihurtzeko. Hasteko, aztarnategi arkeologiko simulatu bat induskatuko dugu, beharrezko tresna guztiekin, eta bertan askotariko piezak aurkituko ditugu, hala nola zeramika arrastoak, hezurak edo txanponak. Lanik interesgarriena, ordea, gero etorriko da, laborategian. Bertan, aurkitutako pieza guztiak ikertu, sailkatu eta interpretatuko ditugu.

6 eta 12 urte arteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago.

Larunbatero goizeko 10:00etatik 13:00etara.
Aldez aurretik erreserba egin behar da.
Tarifa: 5,00 € parte hartzile bakoitzeko.

ERRALDOIAK DANTZATZEN IKASTEKO AKADEMIA

NOIZ: URRIAK 12
NON: OIARTZUN

Erraldioen kulturari buruz gehiago ikasi nahi baduzu, erraldoiak dantzatzen ikasteko akademia ekitaldira etor zaitez! Bertan Erraldioen dantza tradizioa eta koreografiak ikasteko aukera egongo da. Erraldioen dantza teknikak eta mugimenduak ikasi eta hauen historia eta kultura ere.

Informazio gehiago:

Soinuenea. Herri Musikaren Txokoa

Tel: 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

